

2017-03-28ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2017ko martxoaren 28an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Jose Ignacio Imaz Bengoechea.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (2017-02-21).

2017ko otsailaren 21eko aktaren zirriborroa aurkeztu da.

Idazkariak adierazi du nahiko berandu bidali dela.

Jose Ignazio Imaz zinegotziak adierazi du ez dagoela eragozpenik onartzeko, baina detaile txiki bat dagoela zuzentzeko: galde erreguetan, a) paragrafoan, berak esan zuela “teknikaria zentsuratzen ote duten”, eta ez aktaren zirriborroan azaltzen den bezala.

Aldaketa horrekin, akta aho batez onartu da.

Gainera, Jose Ignacio Imazek idazkariari galdetu dio ea nola dagoen Udalbatzako bileren grabazioaren gaia.

Idazkariak erantzun du enpresa bati eskatu zaiola aurrekontua, Sare-Berriri, baina oraindik ez duela aurkeztu eta deituko diola berriz. Halaber, Izfe enpresak iragarri omen du bilerak grabatzeko sistema bat aterako duela, baina bere lana informatikoa izango dela; agian, beste tresna batzuk erosi beharko direla (kamarak...) eta ez dakigula zer kostu izango duen. Sare-Berri enpresak sistema merke bat aurkezten badu, hobe dela jartzea, eta gero ikusiko dugula.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2017/30 DEKRETUTIK 2017/52 DEKRETURA ARTE.

Alkateak 2017/30 dekretutik 2017/52 dekretura artekoen berri eman dio Udalbatzari.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Ainhoa Ugalde zinegotziak galdetu du faktura bat dagoela baranda jartzeko eta ea hori non jarriko den.

Alkateak erantzun du ikastolaren aurrean jarri edo jarriko dela.

HIRUGARREN GAIA

2017KO EKITALDIKO UDAL-AURREKONTUAREN 1. KREDITU-ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udal honen 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren 1. kreditu aldaketaren (1/2017) berri eman da, alkateak proposatutakoa.

Se da cuenta del Expediente de Modificación de Créditos nº 1/2017, del Presupuesto de este Ayuntamiento del ejercicio económico de 2017, propuesta por la Alcaldía.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena ikusi da.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administrazioako informazio-batzordeak 2017ko martxoaren 23ko bileran hartutako irizpena ikusi da.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Cuentas Generales, Presupuesto y Administración en reunión celebrada el día 23 de marzo de 2017.

Hori guztia dela eta, Udalbatzak, aho batez onartu du honako hau:

Ante ello, La Corporación acuerda, por unanimidad de los presentes, la adopción del siguiente acuerdo:

ERABAKIA

ACUERDA

Lehena.- Behin-behinean onartzea 1/2017 kreditu-aldaketaren espedientea, 2017ko ekonomia-ekitaldiaren aurrekontuarena. Hona hemen laburpena:

Primero.- Aprobar inicialmente del Expediente de Modificación de Créditos nº 1 del Presupuesto del ejercicio económico de 2017, con el siguiente resumen:

A) GASTUEN HAZKUNDEA: + 176.500 €

Kapitulua/ Partida	Egungo zenbatekoa	Igoera	Guztizkoa
-6. Kapitulua			
Partida:			
1.0000.601.153.20.00.2017	110.000 €	176.500 €	286.500 €

B) FINANTZAKETA: 176.500 €

B.3.- DIRU SARREREN HAZKUNDEA 176.500 €

Kapitulua/ Partida	Egungo zenbatekoa	Igoera	Guztizkoa
7. Kapitulua			
Partida:			
2.0000.720.01.	0 €	+120.000 €	120.000 €
721.01	0 €	56.500 €	56.500 €

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 laneguneko epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, erreklamazioak aurkezteko aukera egon dadin.

Segundo.- Someter el expediente a información pública por el periodo de 15 días hábiles, mediante publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a efectos de reclamaciones.

Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onartu dela joko da.

En el caso de que no se presente ninguna, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da espedientearen laburpena kapituluka.

Así mismo se deberá publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el resumen por capítulos del expediente.

Hirugarrena.- Horrez gain, eta indarrean dagoen legediarekin bat, aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-

Tercero.- Además y de acuerdo con la legislación vigente, se adjunta informe sobre el cumplimiento de la normativa en

iraunkortasuna betetzeari buruzko txosten bat erantsi da, eta, ondorioz, Udalbatzari honako hau jakinarazi zaio:

A) 2017ko aurrekontuko 1. kreditu-aldaketaren espedientearen proposamenak betetzen ditu aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren finkatu diren helburuak.

materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y en consecuencia se comunica al Pleno lo siguiente:

A) Que la Propuesta de Expediente de Modificación de Créditos nº 1 dentro del Presupuesto de 2017 cumple con el objetivo de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera establecidos.

LAUGARREN GAIA

“IRURAN, GI-3650 ERREPIDEAREN ZEHARBIDEAN, KALE NAGUSIA 25-29 ZATIA URBANIZATZEKO” PROIEKTUAREN OBRA KONTRATATZEA, HALA BADAGOKIO.

Udal honek hala eskatuta “IRURAKO KALE NAGUSIKO 25-29 ZENBAKIEN URBANIZAZIOA BERRITZEA, GI-3650 ERREPIDEKO ZEHARKALEAN” proiektua idatzi du Iñaki Arregi arkitekto teknikoak.

Proiektuaren xedea espaloi-tarte hori hobetzea eta berritzea da, oinezkoen pasabidea, zeharkalea eta ur- eta saneamendu-azpiegiturak hobetzearen eta berritzearen bidez.

Era berean, obra gauzatuko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Ur Partzuergoaren laguntza tekniko eta finantzarioarekin.

Publiko lurak erabiliko dira eta ziurtatzen da beraien erabilera osoa.

Aurrekontu-kreditu nahikoa dago partida honetan:
1.0000.601.153.20.00.2017.

Por encargo de este Ayuntamiento se ha redactado el Proyecto de “REFORMA DE URBANIZACION DE KALE NAGUSIA 25-29, TRAVESIA DE LA CARRETERA GI-3650 EN IRURA”, por el arquitecto técnico Iñaki Arregi.

Dicho proyecto tiene por objeto mejorar y renovar ese tramo de acera, mejorando el paso de los peatones, la travesía y renovando las infraestructuras de agua y saneamiento.

Así mismo la obra se realiza en colaboración técnica y financiera de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

Se acredita la plena disponibilidad de los terrenos necesarios al tratarse de suelos de uso público.

Se tiene el suficiente crédito presupuestario en la partida:
1.0000.601.153.20.00.2017.

Era berean, Udaltzari dagokio
gastua onartzea.

Hori ikusita, Udaltzak aho batez,
honakoa hau erabaki du:

ERABAKIA

1.-Aipatu den Proiektu Teknikoa
onartzea.

2.- Kontratazio-espedientea onartzea
ohiko izapidearen eta prozedura irekiaren
bidez. Eta baita kontratua arautuko duen
Administrazio Baldintza Berezien Osoko
Bilkura ere.

3.-Kontratazio-espedienteari hasiera
ematea.

Así mismo la autorización del
gasto corresponde al Pleno del
Ayuntamiento.

Ante ello, la Corporación
acuerda por unanimidad de los
presentes, lo siguiente:

ACUERDO:

1º.-Aprobar el Proyecto
Técnico citado.

2º.-Aprobar el expediente de
contratación, mediante el trámite
ordinario y el procedimiento abierto.
Así mismo aprobar el Pleno de
Cláusulas Administrativas
Particulares que va a regir el contrato.

3º.-Iniciar el expediente de
contratación.

BOSGARREN GAIA

2017. EKITALDIKO TOLOSALDEA GARATZENEN EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Tolosaldea Garatzen S.A. enpresaren kide garenez eta 2016ko
abenduaren 12ko Batzar Orokorrean onartutako Kudeaketa Planean
zehazten denaren arabera, 2017. urterako Tolosaldea Garatzeni egin
beharreko ekarpena 11.888,00 eurokoa da.

Hori ikusita, Udaltzak aho batez onartu du honakoa:

ERABAKIA

Ekarpenaren gastua onartzea eta ordaintzea.

SEIGARREN GAIA

IRURAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO URAK S.A.-REN ARTEKO LANKIDETZARAKO HITZARMENA: KALE NAGUSIKO 25-29 ZATIA URBANIZATZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udalaren eta Gipuzkoako Urak S.A.-ren arteko
hitzarmenaren xedea proiektu honek jasotze dituen lanak gauzatu eta

finantzatzeko konpromisoak ezartzea: Iruran, GI-3650 errepidearen zeharbidean, Kale Nagusia, 25-29 hiritartzeko proiektua". Kasu honetan uraren eta saneamenduaren sarea: 56.534,85 euroko diru laguntza.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hartu du honako:

ERABAKIA:

Lehena.-Hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Irurako Udaleko Ana Jesús Leunda Gurruchaga alkateari ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko Udal honen izenean eta hitzarmen hori betetzeko beharrezko ekintzak ,erabakiak eta ebazpenak gauzatzeko.

ZAZPIGARREN GAIA

IRURAKO UDALAK GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA ATXIKITZEKO ERABAKIA HARTZEA, HALA BADAGOKIO.

IRURAKO UDALAK GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA ATXIKITZEKO ERABAKIA:

IRURAKO UDALAK SUSTATU NAHI DU HERRITARREN partaidetza.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua* onartu du, bere bigarren artikuluan zehazten duen moduan ondorengo helburuekin:

a) *Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezen.*

b) *Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.*

c) Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebeharrak arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.

d) Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.

e) Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.

Udal honen nahia Espazio horren parte izatea izanik Osoko Batzarrari proposatzen zaio atxikimen adierazpen hau onartzea.

Halaber, Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian zehaztu moduan, atxikimen honek bere gain konpromiso hartzea eskatzen dio.

Gaia aztertuta, aho batez, hau onartu da:

ERABAKIA

1. Irurako Udala Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea.
2. Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea.
 - a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.
 - b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.
 - c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.
 - d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduerak, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.

- e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
- f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.
- g) Espazioaren aurrekontuak ezagutzea eta, behar bada, gai horren inguruan eztabaidatzea organo edo egitura eskudunen bitartez.
- h) Partaidetza alorrean Foru Aldundiak burutuko dituen laguntza tekniko eta lankidetzako prozesuetan udalei eta tokiko erakundeei laguntza ematea, arazoak edo gai irekiak behar bezala identifikatzeko, erregelamendu nahiz ordenantza-tipoak eta proposatutako gida metodologikoak sustatzeko, eta herritarren partaidetzako tokiko politikak hobetzera bideratutako Espazioaren beste edozein ekimen bultzatzeko.
- i) Espazioa dinamizatzea egungo egituren bidez, eta foro teknikoak koordinatzea, hala behar bada.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari erabaki honen berri ematea.

Alkateak adierazi du, gune mugatu honetan berak parte hartuko duela, beste bost udalekin, PSOEko bi, PNVko bi eta beste bi Bildukoak, EUDELen laguntzarekin.

Jose Ignacio Imaz, zinegotziak galdetu dio alkateari ea sei udalek parte hartuko duten foroa bakarrik izango den.

Alkateak erantzun du hori exekutiboa izango dela, halaber badagoela beste foru tekniko bat, eta baita osoko bilkura ere, udal guztien artekoa.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du partaidetza praktikan sustatu behar dela herriarekin, ez bakarrik foru batean.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du kontradikzioa ikusten duela PNV horretan ibiltzea eta, gero, ez izatea kontuan herrian izan diren mugimenduak: zaborrarena, plazako zahar-etxea... Bilduk onartuko duela, baina gero praktikan jarri behar dela.

ZORTZIGARREN GAIA

2017. EKITALDIKO LOATZO MANKOMUNITATERAKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udala Loatzo Udalerrien Mankomunitateko kide da, eta orain 2017ko ekitaldirako udal ekarpenak onartu dira. Irurako Udalaren kasuan ekarpen hori 56.386,67 eurokoa da.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honako hau:

ERABAKIA

Ekarpenaren gastua onartzea eta ordaintzea.

Eztabaida hasi da zer ekarpena onartu behar den galdetuz, kopuru hori den edo beste kopuru bat den, mankomunitatekoak ez diren udaletako ikasleen kostua ere sartu behar ote den. Kasu honetan, 59.951,88 euro izango litzateke.

BEDERATZIGARREN GAIA

MENDEBALDEKO SAHARARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Adierazpen instituzionala, Europako Justizia Auzitegiak Mendebaldeko Saharari buruz emandako epaia betetzearen gainean.

2016ko abenduaren 21ean, Europako Justizia Auzitegiak erabaki zuen ezen Mendebaldeko Sahara ez dela Marokoko Erresumako zati, eta horrek esan nahi du Europar Batasunaren eta Marokoren arteko ezein merkataritza-akordio ezin dela aplikatu Mendebaldeko Saharan, eta ezin dela merkataritza jarduerarik ezarri, ezta Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak esportatu ere, saharar herriaren onespelik gabe.

Epai hori nahitaez bete behar dute Europako eta Estatuko agintariek; horregatik, beren betebeharra da hori

Declaración institucional relativa al cumplimiento de la sentencia del Tribunal de Justicia Europeo sobre el Sahara Occidental.

El pasado 21 de diciembre del 2016, el Tribunal de Justicia Europeo falló que el Sahara Occidental no forma parte del Reino de Marruecos, lo cual significa que ningún acuerdo comercial entre la Unión Europea y Marruecos es aplicable en el Sahara Occidental, y que no se puede establecer ninguna actividad comercial, ni exportar los recursos naturales del Sahara Occidental, sin el consentimiento del pueblo saharauí.

Esta sentencia es de obligado cumplimiento por parte de las autoridades

errespetatzea eta, gainera, herritarrei ezagutaraztea, behar bezala aplikatze aldera.

Halaber, NBEko Segurtasun Kontseiluak 2016ko apirilean onetsitako 2285 ebazpenaren arabera, irtenbide politiko bat lortzea eta Magrebeko estatuen arteko kooperazioa hobetzea lagungarriak izango dira eskualdeko egonkortasunerako eta segurtasunerako.

Aurretik egindako adierazpenetan gogoratu izanenez, Espainiak, 1976ko otsailaren 26an, alde egin zuen Mendebaldeko Saharako lurraldetik, bukatu gabe utzirik deskolonizazio-prozesua, NBEren esparruan abiarazita zegoena; hortaz, Espainiako Estatuak erantzukizun historiko, juridiko eta morala dauka saharar herriarekiko.

Horiek horrela, Irurako Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

1. Dei egiten du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko abenduaren 21eko epaia errespetatu eta betetzera, zeinen arabera Marokoren eta Europar Batasunaren arteko asoziazio- eta liberalizazio-akordioak ez diren Mendebaldeko Saharako lurraldean aplikatzen.
2. Adierazten du kezkatuta dagoela Europako konpainiek Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak ustiatzen dituztelako, zeren gai hori nazioarteko eta Europako zuzenbidearekin

europas y estatales, y por ello es su deber, además de respetarla, darla a conocer a su ciudadanía para su correcta aplicación.

Así mismo, según la resolución 2285 del Consejo de Seguridad de la ONU de abril de 2016, el logro de una solución política y la mejora de la cooperación entre los estados del Magreb contribuirán a la estabilidad y la seguridad de la región.

Como ya se ha recordado en anteriores declaraciones, el 26 de febrero de 1976 España puso fin a su presencia en el territorio del Sáhara Occidental, dejando inconcluso el proceso de descolonización, que ya estaba en curso en el marco de la ONU, por lo que el Estado español tiene una responsabilidad histórica, jurídica y moral con el pueblo saharauí.

Por ello, el Pleno del Ayuntamiento de Irura por unanimidad de los presentes:

ACUERDA

1. Llama a que se respete y cumpla la sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea de 21 de diciembre de 2016, donde se establece que los acuerdos de asociación y liberalización entre Marruecos y la Unión Europea no se aplican al territorio del Sahara Occidental.
2. Expresa su preocupación sobre la explotación de los recursos naturales del Sahara Occidental por parte de compañías europeas, cuestión que entra en contradicción con

kontraesanean baitago; eta berriz ere gogora dakar legez kanpoko delako saharar herriaren onespengabe Mendebaldeko Sahararekin egindako merkataritza-jarduera oro.

3. Dei egiten die Europako, Espainiako eta Euskadiko konpainiei nazioarteko eta Europako zuzenbideari jarraikiz jarduteko, Mendebaldeko Sahararen marokoar okupazioa iraunaraztea eta horko baliabide naturalen ustiaketa faboratu ditzaketen jarduerak utziz (esaterako, hainbat alorretako jarduerak: arrantza, nekazaritza, fosfato- eta hare-erazketa, edo energia berriztagarria), eta agintari guztiak bultzatzen ditu indarrean dagoen legeria ezartzera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren arestiko epaiari jarraikiz.
4. Bat egiten du euskal gizartearen elkartasun korrontearekin, zeinak urteak daramatzan exijitzen irtenbide politiko bat, bidezkoa, iraunkorra eta alde biontzat onargarria, autodeterminazio-erreferendum baten bidez Mendebaldeko Saharako gatazkari bukaera emango diona.

el derecho internacional y el europeo; e insiste en recordar la ilegalidad de cualquier actividad comercial con el Sahara Occidental sin el consentimiento del pueblo saharauí.

3. Hace un llamamiento a compañías europeas, españolas y vascas para que actúen de conformidad con el derecho internacional y europeo, de forma que cesen las actividades que puedan favorecer a la perpetuación de la ocupación marroquí del Sahara Occidental y la explotación de sus recursos naturales (como por ejemplo actividades en las áreas de pesca, agricultura, extracción de fosfatos y arena, o energía renovable), y urge a todas las autoridades a implementar la legislación vigente, sobre la base de la reciente sentencia del TJUE.
4. Se suma a la corriente de solidaridad de la sociedad vasca que lleva años exigiendo una solución política, justa, duradera y mutuamente aceptable a través de un referéndum de autodeterminación que ponga fin al conflicto del Sahara Occidental.

HAMARGARREN GAIA

ALTSASUKO AUZIARI BURUZKO ADIERAZPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Altsasun 2016ko urrian izandako gertaeren harira zenbait gazte terrorismo delituagatik inputatuak izan ziren; gure ustez prozesu horren izapideak Iruñan egin beharko lirateke, izan ere epaitzeko eskumena tokian tokiko epaitegiei baitagokie eta ez Entzutegi Nazionalari. Hori hala izan behar lukeela adierazi dute zenbait erakundek, nabarmenki Nafarroako Legebiltzarrak, baita jurista eta Unibertsitate-irakasle ugari ere. Horren karira, zure elkartasuna eskatzera gatozkizu Nafarroako Legebiltzarrak, Altsasuko Udalak eta idazki honen sinatzaileok ordezkatzan dugun gizarte zibilak luzatu dugun deiari jarraiki.

En relación con los sucesos ocurridos en Altsasu en octubre de 2016 que dieron lugar al procesamiento por delito de terrorismo de los jóvenes imputados en los sucesos, entendemos que el proceso debe ser instruido en Iruña-Pamplona y que la competencia debe ser de los tribunales del lugar y no de la Audiencia Nacional. Así se han manifestado diferentes instituciones, señaladamente el Parlamento de Navarra, y juristas y profesores de Universidad. Por todo ello solicitamos tu solidaridad con la petición realizada por el Parlamento de Navarra, por el Ayuntamiento de Altsasu y por la sociedad civil, representada por los firmantes de este escrito.

Udalbatzak aho batez erabaki du adierazpen hau onartzea.

Galdera-eskarien atalaren aurretik ondorengo gaia tratatu da, presazko egoera adierazi baitute, aho batez, batzarkideek, eta hauek Udalbatzarraren partaideen legezko gehiengo osoaren botoa osatzen baitute:

HAMAHIKAGARRENA

MARTXOAREN 21a, ARRAZAKERIAREN ETA XENOFOBIAREN KONTRAKO NAZIARTEKO EGUNA.- Mozio hau aurkeztu da:

Nazio Batuen Batzar Nagusiak martxoaren 21ean ospatzen du Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta estatu-kideei eskatzen die ekintza-planak abiarazi ditzaten, arrazakeria eta apartheidia ezabatzeko. UNESCOko zuzendari nagusiak 2017an zabaldutako mezuak gogorarazten digu arrazakeriak gizabanakoak eta gizartea hondatzen dituen pozoia dela,

La Asamblea General de Naciones Unidas conmemora el 21 de marzo como Día Internacional de la Eliminación de la Discriminación Racial y exige a los Estados miembros que impulsen programas de acción enfocados en la erradicación de la discriminación racial y el apartheid. El mensaje de la Directora General de UNESCO en 2017 nos recuerda que la discriminación racial es un veneno

ezberdintasunak iraunarazten dituela, eta haserrea, amorrua eta indarkeria bultzatzen dituela. Krisi ekonomikoa eta ziurgabetasun soziala ezaugarri duten garaiotan, erraza da “bestea” erruduntzat hartzea, eta arraza-diskriminazioa tentazio arriskutsua bihurtzen da, zeina gorrotoaren artisauek ondo aprobetxatzen dakiten.

Gaur egungo arrazakeria-, arraza-diskriminazio-, xenofobia- eta antzeko tolerantzia-ezeko ereduak NBEko errelatore bereziak txostena egin zuen 2013an Espainiaren inguruan. Bertan, gogor kritikatu zuen arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako legeria, eta baietzi zuen migratzaile, ijito eta errefuxiatuen eskubideak urratzen zirela. Zehazki, adierazi zuen krisi ekonomikoak atzerakada ekarri zuela arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan; besteak beste, ildo horretan lan egiten duten erakundeek laguntza finantzarioaren ezagatik.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Europako Batzordea (ECRI) Espainiara etorri da 2017ko urtarrilean, bosgarren txostena egiteko asmoz. Laugarren txostenean (2011) Nazio Batuetako errelatoreak agertutakoen antzeko kezkak jaso ziren.

Martxoaren 21ak gogorarazten digu edonolako arraza-diskriminazioa ezabatu beharra dagoela; eta bereziki garrantzitsua gertatzen da, gizarte guztietan oraindik jarraitzen eta irauten duten xenofobia-mota sotilez gain, beste xenofobia-adierazpen kezkagarriak azaleratu direlako, gobernuek, gizarte-erakundeek, alderdi politikoek eta beste hainbat

que menoscaba a las personas y las sociedades, perpetúa las desigualdades y fomenta la ira, el resentimiento y la violencia. En tiempos de crisis económica y de incertidumbre social, es fácil hacer del “otro” un chivo expiatorio, y la discriminación racial es una tentación peligrosa que los artesanos del odio saben aprovechar.

El Relator especial de la ONU sobre las formas contemporáneas de racismo, discriminación racial, xenofobia y formas conexas de intolerancia, en su informe de 2013 sobre el estado español fue muy crítico con la legislación contra el racismo y la xenofobia, y constató la vulneración de derechos de personas migrantes, gitanas y refugiadas. Concretamente señalaba cómo la crisis económica suponía un retroceso en la lucha contra el racismo y la xenofobia, entre otros motivos, por la falta de apoyo financiero a las organizaciones dedicadas a esta labor.

La Comisión Europea contra el Racismo y la Xenofobia (ECRI) del Consejo de Europa, ha visitado en enero de 2017 el estado español con objeto de realizar el 5º informe. En el 4º informe (2011) señalaba similares motivos de preocupación a los del relator de Naciones Unidas.

El 21 de marzo, que recuerda la necesidad de eliminar todo tipo de discriminación racial, cobra especial relevancia porque junto a la existencia y persistencia de formas sutiles de xenofobia presentes en todas las sociedades, emergen otras alarmantes manifestaciones de xenofobia alentadas desde gobiernos, organismos sociales, partidos políticos y otros muchos agentes que pueden terminar convirtiéndose en formas

eragilek sustatuta. Horiek xenofobia-eredu instituzionalizatuak bihurtu daitezke eta, ondorioz, diskriminazioa ekarri dezakete. Halako jarrerak, behin martxan, oso zailak dira gelditzen. Jakina, Europatik iristen diren oihartzun larrigarri ugariak direla-eta, egoerarik txarrena aurreikusten dugu, eta horixe barneratzen dugu, bai eta Europaren aukera ere.

Mugimendu xenofoboak gizartean zabaldu ohi dira, inpunitate-eremuak zein onespun guneak sortuz. Egoera horiek sendotu eta finkatu egiten dira liderrak proposatzen dituztenenean, gizartean haien parekorik ez dagoela baieztatzen dutelarik. Hala, pentsamolde ideologikoak askatzen dituzte, zeinek, lehentasun nazionalaren izenean, tartea gordetzen eta indartzen duten biztanleriak duen immigranteen behar materialaren eta etorkinek harrera-gizarteetan jasaten duten gaitzespenaren artean. Bada logika hori –lagungarria eta okerra dena aldi berean– labur en duen lema bat: Needed, but not Wellcome!

TOLOSALDEKO UDALA, ZAS!
Zurumurruen Aurkako Sarearen parte izanik, aditzera eman nahi dugu konpromisoa hartu dugula dauden prozedura eta mekanismo guztiak sustatu eta abian jartzeko, xenofobia- eta diskriminazio ereduak –sotilak eta agerikoak, ala ez hainbeste– sustatu nahi dituzten proposamen politiko eta diskurtsoak ahultzeko. Adierazpen eta diskurtso horiek ez dira gure izenean egingo, ez eta erakundeen izenean ere.

Ikusirik politika xenofoboek zenbateraino egin duten aurrera Europan eta mundu-mailan, berretsi nahi dugu gure

instituzionalizadas de xenofobia y consecuente discriminación. Este continuum es muy difícil de parar una vez iniciada su andadura. Desde luego, los muchos ecos preocupantes que nos llegan desde Europa hacen presagiar lo peor, llegando a socavar la misma idea, e incluso posibilidad, de Europa.

Todo movimiento xenófobo tiende a expandirse socialmente creando ámbitos de impunidad y zonas de aquiescencia. Estas realidades suelen intensificarse y tomar plaza cuando sus proponentes son liderazgos que, afirmando basarse en sentires sociales únicamente, dan rienda suelta a corrientes ideológicas que en nombre de la preferencia nacional mantiene y fortalece el divorcio entre la necesidad material de población inmigrante y el rechazo que tales inmigrantes sufren en las sociedades receptoras. Un lema resume esta lógica tan socorrida como desacertada de Needed, but not Wellcome!

El AYUNTAMIENTO DE TOLOSALDEA, como miembro de ZAS! Red Vasca Antirumores tiene el compromiso de impulsar y poner en marcha todos los procedimientos y mecanismos disponibles para debilitar tanto los discursos como las propuestas políticas orientadas al fomento de formas más o menos sutiles o manifiestas de xenofobia y discriminación. No al menos en nuestro nombre, ni desde las instituciones.

Ante el avance de fuerzas políticas xenófobas en el contexto europeo y mundial, reafirmamos nuestro compromiso para impedir las

konpromisoa; hots, inpunitate-dinamikak galaraztearena baiezko demokratiko eta irmo baten bidez, ez daitezen gobernura iritsi. Giza eskubideek lehenetsua dute, eta eskuratu ditugun gobernu-moldeek barne hartu behar dituzte; horretarako, beharrezkoa da erakundeek irmoki uko egin diezaietela xenofobiari eta arrazakeriari.

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sareak ezinbestekotzat jotzen du:

- Arrazakeria eta xenofobia prebenitu eta ezabatzeke politika publikoak nahiz gizarte-estrategiak bultzatzea, ikuspegi deskolonizatzaile batetik eta elkargunea bilatuz.
- Immigranteek egindako ekarpenak azpimarratzea, eta Euskadiko biztanle guztien aukera berdintasuna bermatzea, baita sustapen sozial, ekonomiko eta kulturalerako aukerak indartzea ere.
- Kulturartekotasunaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako jarrerak sustatzen dituzten hedapen- eta sentsibilizazio-ekintza nahiz estrategiak aktibatzea, zurrumurruen aurkako sareak sendotuta eta hezkuntzari arreta berezia eskainita, formalari zein ezformalari.
- Etika publikoa sustatzea, zeinak herritarrak kontzientziatuko dituen eta edozein arrazakeria- edo xenofobia-aztarna ezabatuko duen.
- Alderdi politiko guztiek kode etikoa bereganatu dezatela gomendatzea, konpromisoa hartu dezaten demagogia eta populismorik ez egiteko immigranteen inguruan; bai eta mekanismoak ezarri ditzatela ere, konpromiso hori betetzen ez dutenak zehatzeko.

Udalbatzak aho batez onartu du mozioa.

dinámicas de impunidad mediante una afirmación democrática firme que imposibilite su acceso a los diferentes niveles de gobierno. Los derechos humanos anteceden y deben quedar incorporados en las formas de gobierno de las que nos hemos dotado y ello exige una posición firme de cierre institucional a la xenofobia y al racismo.

ZAS! Red Vasca Antirumores considera importante:

- Impulsar políticas públicas y estrategias sociales para la prevención y la eliminación del racismo y la xenofobia en todos los ámbitos, desde una mirada descolonizadora e interseccional.
- Subrayar las contribuciones de la inmigración, garantizar la igualdad de oportunidades y la promoción social, económica y cultural de toda la ciudadanía que reside en Euskadi.
- Activar estrategias y acciones de difusión y sensibilización que fomenten la interculturalidad y el antirracismo, fortaleciendo redes antirumores, con una atención especial al ámbito educativo formal y no formal.
- Promover una ética pública que conciencie a la ciudadanía y elimine todo remanente racista o xenófobo.
- Recomendar que los partidos políticos se doten de un código ético por el cual se comprometan a no hacer demagogia ni populismo con la inmigración y que se doten de mecanismos que sancionen a quienes incumplan este compromiso.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du kontradikzioa ikusten duela PNVk mozio hau onartzean eta, aldi berean, RGI kentzean, etorkinengan “efecto llamada” eragiten duelako. Eta hori zurrumurrua sortzea ere badela.

HAMABIGARRENA.

GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dituzte:

a) Ainhoa Ugalde zinegotziak galdetu dio alkateari ea nola ikusten duten BXSport enpresaren zerbitzua, nahikoa “desastre” delako.

Alkateak erantzun du gaia pasatuko dutela batzordetik, baina aurreratu du udaleko arduradunei eskatu diela beste enpresa batzuk begiratzen hasteko datorren ikasturteko zerbitzua emateko.

b) Olaia Nieto zinegotziak adierazi du, azken udalbatzan, gobernuko taldea geratu zela euskarako gastua errebisatzeko, eta galdetu du ea zerbait egin ote duten.

Alkateak erantzun du gai honi buruz pentsatzen ari direla, baina, aurretik, batzordetik pasatu behar dela.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA